

Zarautz, Literaturia – 2024/05/24
Begiratzea ez da nahikoa egia birsortu ahal izateko.
Manifestu bat 15 puntutan eta ahots askotara
Mari Luz Esteban

1.- Begirada

Egiaren politika begiradaren politika da, behaketarena.

Zer egin dezake begirada batek? –galdetu du Sarah Bibaker-ek- (...) Ezin duzu ezer egin zure begi ikaratuekin albisteei begiratzen diezun bitartean (...) Ezin duzu kontsolatu pantailaren atzean negar egiten duena, milaka kilometrora. Ezin zara iritsi armak iristen diren lekura, horiek geldiarazi begiradaren bidez.

Orduan begiratzeari utziko diogu? Ez, mesedez.

Begiratzea bestearen gizatasuna, duintasuna eta balioa aitortzea ere bada. Begiratzea axolagabekeriaren eta konplizitatearen aurkako garaipen txikia da. Begiratzea [Gazako] genozidioaren zentzu komunaren aurkako matxinadaren hasiera da.

Lehenago edo geroago ernamuinduko da hazia (Bibaker, 2024).

Uxue Apaolazak (2023) hauxe proposatu digu: *Begira dezagun itzaltzen digutena, gauzak ez dira egoten argitzen dizkiguten lekuetan.*

2.- Presbizia

Manifestu honen idazleak presbizia du, ikusmena gero eta nekatuagoa. Aurten betaurrekoen kristalak aldatu behar izan ditu. Testuaren letra tamaina gero eta handiagoa. Gaur: times new roman 17.

Bat-batean, egunkaria, liburua eta farmako baten prospektoa urrundu behar izaten dugu (...) [Urrundu] aurrean daukaguna argi eta garbi aztertzeko (Navas, 2023).

Gertatzen ari dena ondo interpretatzeko distantzia behar dugu, desenfokatu eta osterera ere enfokatu.

Nago presbiziak eragiten duen distantzia hori egiari aurrez aurre begiratzeko baldintza bikaina izan daitekeela. Oraindik presbizia ez duzuenok pentsatu beharko duzue nola lortu desenfokatzea.

Urrunera eta hurbilerako betaurrekoak behar dituzuenok, Jorge Oteizak omen zuen ohitura jarraitu dezakezue: urrunera begiratzeko gertuko betaurrekoak erabili eta hurbilera begiratzeko urrunekoak.

3.- Metodoa

Zure eta zure familiaren egiaz idazten hasia zara. Autoetnografia deitzen diogu horri antropologia arloan.

Annie Ernaux-ek “autobiografia hutsa” (2023: 177) autobiografia kolektiboa idatzi nahi du, arlo intimoa eta soziala bereizi gabe. Honela definitu du bere metodoa:

Egia bat norberaren baitatik kanpo bilatzea (...) ... egia hori garrantzitsuagoa da nire pertsonarekiko kezka baino, nitaz pentsatuko denarekiko kezka baino; egia horrek merezi du, arriskuak hartzea eskatzen du (2023: 126-127).

Idazketaren definizio bat eman beharko banu, hauxe izango litzateke: idaztean aurkitzea beste era batera ezinezkoa dena aurkitzea (...) Horretan datza idazketaren gozamina — eta izua —, hari esker zer iristen den ez jakitea (2023: 167).

Idazkera labana bihurtu du Ernaux-ek.

Nork hitz egin, zertaz, noren izenean?

Une honetan —esan du Igor Elortzak elkarrizketa batean-, ez naiz gai euskal gatazkaz edo egun gizon izateaz hitz egiteko, lehen pertsonan ez bada (Astiz, 2022).

Lehen pertsona: ni-ak durundi egiten du gu-an, gu-a ezegonkortzeraino.

4.- Deserosotasuna

Idazleak liburu baten notizia irakurri du egunkarian, eta egiak eztanda egin dio aurpegian.

Ez zegoen horretarako prestatuta eta isildu egin da. Horrenbesterako izango al da? pentsatu du. Euskaldunak desberdinak garela pentsatzeko ere tentazioa izan du.

Uxue Alberdi eta hamabost bertsolarik kontatu duten egia *Kontrako eztarritik* joan zaio.

Halako gehiago helduko direnaz nork egin zalantza?

Zerbait kontrako eztarritik joaten zaizunean ezin duzu hitz egin, argi dago, eta isilik mantendu da. Gainera, pentsatu du, agian ez zen momentua horretaz hitz egiteko, horretaz idazteko. Agian beste era batera egin behar zen. Ziur dago, beti dago beste era bat, gozoagoa, atseginagoa, egiarik bortitzena ere zabaltzeko.

Egiak deseroso utzi du. Deserosotasunak ezintasuna elikatu dezake, jarraitu du, ahalmena bezain, ondo neurtu behar da jomuga.

Baina gogoratu da Harkaitz Canoren (2005) errelatoaz, non Kafkak hobetsi duen eran idatzi ahal izateko aulki deseroso bat agindu dion haren arotzari, aulki inperfektua eskatu dio.

Gogoeta egin al duzue ea zuen aulkia nahikoa deserosoa den, nahikoa inperfektua?

5.- Isiltzea

Adostasuna eta ezadostasuna isiltasunaren bidez ere adieraz daitezke. Bai, bai, errepikatu duzu, pozik, harro zure burutazio horretaz: isiltasuna ez da beti *koldarkeriazkoa, indiferentziazkoa, konplizea*, irakurri zenion Anjel Lertxundiri (2016). Egiak, itsasoak bezala, nahiago du noiz edo noiz *isilik orro egin*.

Mari Luz Estebani ere entzun diozu inoiz isiltasun mota desberdinak izan direla euskal gizartean azken hamarkadotan eta isiltasun batzuk sortzaileak ere badirela, elkarbizitzarako nahitaezkoak.

Oso interesgarria da isiltasuna –irakurri diozu Pascal Gaigneri (Colina, 2015)- *dena entzuten duzu, baita zure beldurrak ere*.

Azkenean, Miren Agur Meaberengana jotzea erabaki duzu, berak irakatsi ahal dizulako nola erre mintzen zaituena eta gero *Nola gorde errautsa kolkoan* (2020).

6.- Ez isiltzea

Gabriel Aresti (1963) gogoratuz esango dut:

(...)
Egia bat esateagatik,
nire izena
kenduko badute
euskal literaturaren
urrezko
orrietatik,
inoiz,
inola,
inun
ez naiz
isilduko

7.- Galtzearen artea

Hainbat liburu ditugu eskura galtzearen arteaz dihardutenak. Egileak, askotan, emakumezkoak. Ez da kasualitatea izango.

Badugu, nola ez, Elizabeth Bishop-en poema hiper ezaguna; honela dio: *galtzearen artea ez da menderatzeko zailegia, / nahiz eta (idatz ezazu!) hondamendia dirudien* (1983).

Nago berdintasuna dagoela batzuek eta besteek galtzeko ditugun aukeren arteko oreka ponderatuan.

8.- Justizia

Adituak gara euskaldunok egia, justizia eta erreparazioaren teoria eta entseguetan. Hortxe ari dira talde batzuk justizia feminismotik jokatu guran.

Justizia bide berriak topatzea, baina, ez da erraza. Badaude, halere, trebatuagoak diren eragileak.

2020ko urriaren 5ean, Ekhine Eizagirre poeta eta une hartan antropologia ikaslea atxilotua izan da.

astero itzuli beharko du epaitegira / zulo bat izatea leporatuta / asko dira oraindik ETA indarrean behar dutenak

ikaskideek haren poemen kopia erraldoiak / zintzilikatu dituzte fakultateko baranda guztietan (Esteban, 2023: 123).

9.- Kantua

Urugai-ko feministek, aipatu du Victoria Furtadok (2024) hitzaldi batean, aldarri mota berri bat asmatu dute: manifestazioen amaieran, milaka emakumek zirkuluetan jarrita “proklama” izeneko testu bat irakurtzen dute denek batera ahots goraz. Banakako mintzoa eta mintzo kolektiboa. Norberaren aitortzaren bidez taldea aitortu.

Kantatzea da euskaldunok ohikoa dugun mintzo kolektiboetako bat, elkarrekin negar, barre eta gozatzeko adierazpide ederra.

Ereserki berrien garaian (Ion Celestino [Etxarte, 2022]) elkarrekin kantatzen segi *etorkizuna oroitu* (Benito, 2022) ahal izateko.

10.- Oka

Idazteko ekintza ere oka egiteko modu bat izan daiteke, purga autoinduzitua.

Leonora Carrington-ek (2017) honela gogoratu zuen Santander-eko eroetxetik atera zen unea:

Zenbait orduz negarrez egon nintzen herrian, gero etxera itzuli nintzen, eta han ordu batzuk eman nituen gonbitoak eragiten azahar-urarekin, siesta txiki batek etenak. Nire sufrimendua arintzea espero nuen, urdaila lurrikara gisara astintzen zidaten espasmo horiekin.

11.- Sekretuak

Norberaren zaurgarritasuna azaltzea ariketa politikoa da, pentsamenduaren eta ekintzaren eskema nagusiak haustea xede. Hori bai, esposizioak kostu edo inpaktu emozionala ere izan dezake.

Ezin hobeto dakite hori torturatuak izan diren lagunek.

Esan ez esan, idatzi ez idatzi. Idazlea labanaren ahoan ekilibrista.

María Lugones feminista dekolonialak (2021: 43) argi zuen: *Sekretuak gordetzen ditut (...) Gure sekretuak azaltzeak gure biziraupena mehatxatzen du.*

12.- Espazio segurua

Feminismoak espazio seguruen ezinbestekotasunaz hitz egin digu. Espazio seguruak egia ahoratu ahal izateko, espazio seguruak bestea entzuteko, espazio seguruak bestea idazteko, espazio seguruak bestea irakurtzeko.

Euskal literatura espazio segurua al da?

13.- Amnesia

Ziurgabetasun-unea bizi dugu. Errepikatu eta errepikatu ari gara ideia hori ondoeza exorzizatzeko ahaleginean.

Ziurgabetasuna arintzeko estrategia desberdinak jarri dira martxan: Bat, *Mundu posibleei buruzko istorioak eta fabulazioak* (Hainbat egile, 2023) idaztea. Beste bat: iragana ahazten saiatu eta zerotik abiatuko bagina bezala jardutea.

Errieta egin digu Sonia Gonzálezek (2018: 81) horren kontura: *Oraina ez da gauza berria, iraganaren berrikuspen eguneratua baino*.

Literatura, amnesiaren kontra.

Iragana egurastu / etorkizunak arnasa har dezan (Esteban, 2019: 15).

14.- Egiantzekotasuna

Idazlea paperaren/pantailaren aurrean paratu eta idatzi du. Baliteke geroago idatzi duena argitaratzea.

“Hau, bestea, haragokoa... benetan gertatu da -pentsatu du-, horretaz idatzi nahi dut”, eta benetako hori egiantzez jantzi du.

Egiantzekotasuna: *Egia poetikoa (...) ... itun narratibo bat proposatu irakurleari (...) azaldutakoa onar dezan, fikziozkoa izan arren¹*.

15.- Poesia

Celso Emilio Ferreirori (1962, in Riechmann, 2013: 61) kasu egin esaten duenean:

Ikertu zure garaiko egia / eta aurkituko duzu zure poesia².

¹ Glaubwürdigkeit (verosimilitud) kontzeptuaren inguruko definizioa, <http://culturitalia.uibk.ac.at> web orrialdean.

² *Investiga la verdad de tu tiempo / y encontrarás tu poesía*

Hauxe da amaitzeko egiten dizuedan gonbidapena: ikertu dezagun gure garaiko egia eta aurkituko dugu gure poesia.

Bibliografia.-

Alberdi, Uxue (2019) *Kontrako eztarritik*. Zarautz: Susa (Lisipe 5).

Apaolaza Larrea, Uxue (2023) Zer iritzi. *Argia*. Azaroak 5. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2845/materialismo-histerikoa-2>

Aresti, Gabriel (1963) Egia bat esateatagik. <https://basquepoetry.eus/?i=poemak&b=265>

Astiz, Iñigo (2022) Une honetan ez naiz gai euskal gatazkaz edo egun gizon izateaz hitz egiteko lehen pertsonan ez bada (Igor Elortza eta Rafa Ruedari elkarrizketa). *berria.eus*, azaroak 19. https://www.berria.eus/kultura/une-honetan-ez-naiz-gai-euskal-gatazkaz-edo-egun-gizon-izateaz-hitz-egiteko-lehen-pertsonan-ez-bada_1324315_102.html

Benito, Jon (2022) *Lagun minak*. Farmazia beltza argitaletxea.

Bibaker, Sarah (2024) ¿Mirar? *El Salto revista*, 73: 11.

Bishop, Elizabeth (1983) One art. <https://www.poetryfoundation.org/poems/47536/one-art>.

Cano, Harkaitz (2005) Aulkien historiako une estelarrak. *Neguko zirkua*. Zarautz: Susa,

Carrington, Leonora (2017) *Memorias de abajo*. Alpha Decay.

Colina, Sustrai (2015) Oso interesgarria da isiltasuna: dena entzuten duzu, baita zure beldurrak ere. *argia.eus*, abenduak 6. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2486/pascal-gaigne-konposatzailea>

Etxarte, Hedoi (2022) Pikutara musika herrikoia. *Berria*, irailak 10. <https://www.berria.eus/paperekoa/1892/014/002/2022-09-10/pikutara-musika-herrikoia.htm>

Ernaux, Annie (2023) *La escritura como un cuchillo*. Madril: Cabaret Voltaire.

Esteban, Mari Luz (2019) *Andrezaharraren manifestua*. Iruñea: Pamiela.

Esteban, Mari Luz (2023) *Haragizko erreformak*. Iruñea: Pamiela.

Ferreiro, Celso Emilio (1962) La poesía es verdad. *Longa noite de pedra*. Vigo: Salnés. <https://poeticas.es/?p=2170>

Furtado, Victoria (2024) Lenguaje, subalternidad y lingüística feminista (hitzaldia). *Jakintza, hizkuntzak eta generoa* jardunaldiak. Hezkuntza, filosofia eta antropologia fakultatea, Donostia, urtarrilak 17.

González, Sonia (2018) *Erreka haizea*. Zarautz: Susa

Hainbat egile (2023) *Mundu posibleei buruzko istorioak eta fabulazioak*. Bilbo: Consonni.

Lertxundi, Anjel (2016) Isiltasuna. https://www.berria.eus/iritzia/isiltasuna_1156099_102.html

Lugones, María (2021) *Peregrinajes. Teorizar una coalición contra múltiples opresiones*. Ediciones del signo.

Meabe, Miren Agur (2020) *Nola gorde errautsa kolkoan*. Zarautz: Susa

Navas, Aster (2023) Presbicia. *naiz.eus*, azaroak 6. <https://www.naiz.eus/eu/iritzia/articulos/presbicia>

Riechman, Jorge (2013) *Ahí es nada. Nuevos ensayos sobre el mundo y la poesía y el mundo*. Errenteria: El Gallo de Oro.